



Adinduak
omendu dituzte
asteburuan

Asteburuan herriko zaharrenak omendu zituzten. Ostiralean, aurtan Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bikoteei omenaldia egin zitzaizen. Igandean berriz, goizean meza, eguerdian Biyak Bat koroa, ostean bazkaria eta arratsaldean dantzaldia eta brindisaz gozatzeko aukera izan zuten Lasarte-Oriako adinduek. /4-5. orrialdeak



Jende lepo zegoen Okendo Plaza oholta inprobisatua bihurtu zen Kukai dantza taldekoen emanaldia ikusteko.

Kukairen dantzak kalean

Sei dantzari eta DJ batez osaturiko taldeak "Karrikan" ikuskizuna eskaini zuen ostiralean

Jendetsua izan zen ostiral arratsaldean Kukai dantza taldeak Okendon eskaini zuen "Karrikan" emanaldia. Sei dantzari eta DJ bat aritu ziren plazara bertaratu ziren pertsonak alaitzen. Denetariko jendea ikus zitekeen, haur, heldu eta gazteek Kukairen ikuskizunarekin gozatu ahal izan zuten. •

Kalitatezko ahotsak

Ostiral arratsaldean Brigitarren komentura hurbildu ziren herritarrek kalitate handiko ahots musikaz gozatu zuten. Landarbaso abesbatzak Tolosako abesbatzen lehiaketarako aurkeztuko dituen doinu polifoniko eta folklorikoetako batzuk eskaini zituen kontzertuan, hala nola, Josep Vilaren *Sanctus Benedictus* eta Xabier Sarasolaren *Zuk zure ama* doinuak. Bate-tik, ikusleek gustuko izan zuten emanaldia, eta bestalde zalantzarik gabe Erretereriako taldeak txapelketarako prest dagoela erakutsi zuen ostiralean Lasarte-Orian. •



Landarbaso abesbatzako kideek kontzertu ederra eskaini zuten ostiralean Ama Brigitarren komentuan.

ELKARRIZKETA /2

David Infante
Real Union taldeko
jokalariarekin
solasean

KIROLA/3

Santi eta Martinen
omenezko VIII.
Bolo Txapelketa

ALBISTEA/2

Ikasturte berriaren
aurkezpena egin
zuen Kukukak

amaraun
ludoteka

asteazkenetan
arte txokoa
17:30etatik 19:00ak arte

astelehenetan
ariketa jolasak
(actividades físicas)
17:30etatik 19:00ak arte

2 urtetik 8 urtera bitartekoentzat

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

David Infante Real Union taldeko jokalaria

“Goi mailako futbola oso zaila da eta profesionala izateko aukerak, oso gutxi”

■ Bigarren B mailako taldean toki bat lortu nahi du herriko gazteak ahal bezain beste minutu jokatu ahal izateko ■ Denboraldi hasiera kaxkarra gainditu eta puntuak pilatzea dute helburu

David Infante 20 urteko lasarteoriarra Real Union taldeko jokalaria da. Aurten hasi da bigarren B mailako taldearekin jokatzen eta momentuz gustura dago maila berri honetan debutatzearekin. Futbolaria izateaz gain, ingeniari-tza informatikoa ikasten ari da. Gaztearentzat ez da erraza ikasketak eta entrenamenduak uztertzea, baina otsailean karrera amaitu ahal izatea espero du futbolean behar bezala murgiltzeko.

MAIDER AZURMENDI

David Infante bigarren B mailan Errege Koparako sailkapen partidaren egin zuen debuta talde txuri beltzarekin. Nojaren aurkako partida garrantzitsua zen baina azkenean, txapelketatik kanpo geratu ziren 2-1eko emaitzarekin.

Desilusio handia izan da Infanterentzat baina Ligan lan ona egitea espero du bere futbol-ibilbidea luzea eta oparoa izan dadin.

Zenbat urterekin hasi zinen futbolean?

Lau urterekin hasi nintzen, eskolan, Sasoean. Gero Ostadar eta Texas taldeetan jokatu nuen eta jubenetako bigarren urtean, 17 urterekin Real Union-etik deitu zidaten jubenetik mailan jokatzeraz joateko.

Probatzeagatik joan nintzen. Egia esan pozgarria izan zen eskaintza hura jasotzea.

Lasarte-Oria eta Irun arteko bidea buruz jakingo duzu dagoeneko...

Bai urte hauetan topoan joan izan naiz eta bidai denbora hori ikasteko erabili dut. Esan daiteke karrera bidai horiei esker atera dudala ia. Orain Gorka Brit-ekin joaten naiz. Bera lehen taldeko jokalaria da eta biok lasartearrak izanda elkarrekin ibiltzen gara.

Lehen taldean jokatzen hasi duzu denboraldia, aldaketa handia al da?

Bai oso handia. Asko aldatzen da lan egiteko modua. Orain jokalaria helduekin nago eta batzuk bigarren mailako taldeetan ibilitakoak dira. Egunero ordu eta erdiko entrenamenduak izaten ditut eta tarteka goiz eta arratsalde ere bai.

Taldeak mister berria du aurten; Roberto Olabek hartu du

gidaritza. Taldea pozik al dago berarekin?

Nik baietz uste dut. Taldea hartu zuenean lehen erabakia bigarren taldeko bederatzik jokalaria igotzea izan zen. Igo ginenen artean, azkenean, taldean bi geratu gara, baina behintzat aukera eman digu egiten dakiguna erakusteko. Orain geratu garenok lan asko egin behar dugu.

Entrenatzaile bezala, intentsitate asko eskatzen digu beti. Entrenamenduak gogorrak izaten dira. Akatsak atera eta hauek zuzentzeko argibideak ematen dizkigu, baina orokorrean asko animatzen gaitu.

Aldageletan giroa ona al da?

Oso giro ona dago. Zelaian ezberdintasun handia dago zure adinekoekin edo helduegoekin jokatzean, baina beste-lagunak gure artean ondo moldatzen gara.

Denboraldia ez da emaitza onekin hasi...

Dagoeneko buelta eman diogu. Galtzen hastea gogorra da, baina Alavesen kontrakoan lehen garaipena lortu genuen. Pixkanaka puntuak gehitzen joan behar dugu eta hasiera kaxkarra ahal bezain laster ahaztu.

Gainera Errege Kopatik kanpo geratu zarete. Orain arteko kolperik gogorrena izan al da?

Ba bai, oso gogorra izan da. Nojaren aurka jokatu eta 2-1galdu genuen. Taldeak Errege Kopa jokatzekeo ilusio handia zeukan eta lehen kanporaketan huts egitea, kolpe gogorra izan zen. Txapelketa honek ilusio berezia egiten du lehen mailako taldeen aurkako partidak egon daitezkeelako bidean, baina aurtengoan ezingo da. Dena den, oztopo hori gainditu eta Ligan pentsatu beharra dugu. Indar guztiak Ligan jarri behar dira orain.



Titular izateko aukerarik ikusten al duzu?

Zaila dago, kalitate eta esperientzia handiko jokalariek daudelako taldean, baina saiatuko naiz. Momentuz misterrak aukera eman dit jokatzekeo, Noja-ren aurkakotan egin nuen debuta eta gerora minutuak izan ditut. Bigarren taldeetik igo berria naiz eta pixkanaka egin behar ditut gauzak ohitzen joateko.

Denboraldi berri honetan helburua zein izango da taldearentzat?

Betiko helburua, taulan lehenengo lau taldeen artean geratu nahi dugu, maila igoera jokatu ahal izateko. Lan ona egin behar dugu denboraldi osoan. Salamanca esaterako aurkari gogorra da eta oso maila onean aritu daitezkeen beste batzuk ere badaude. Ikusiko da. Lan txukunena egiten ahaleginduko gara. Bigarren mailan jokatzekeo moduko taldea dugu.

Eta pertsonalki zein da zure helburua?

Otsailean ikasketak bukatu nahi nituzke eta entrenamenduetan murgildu erabat. Ikusi nahi dut jokalaria bezala zein

beldurrik ematen. Baina noski, ondo zaindu behar gara hauek ahal den neurrian ekiditeko. Uztailean behatz bat hautsita izan nuen, baina zorionez ez zen larria izan. Oraindik behatz hori ondo babesten dut jokatu behar dudanean, garrantzitsua da ondo sendatzea gerora mindu ez dadin.

Futbolari bezala momentuko zein taldetan gustatuko litzazuke egotea? Jarraitzen al duzu Lehen Maila?

Bai jarraitzen dut. Profesionalen maila izango banu edo lortuko banu, euskal talde batean egotea gustatuko litzaidake. Errealak oso ondo hasi du denboraldia eta lan ona egin dezakeela iruditzen zait. Talde gaztea da eta harrobikoei aukera ematea erabaki ona izan dela dirudi.

Arreba ere futbolaria da ezta?

Bai, Miriam futbolearen aritzen da, Ostadarren hasi zen eta orain Añorga taldean dabil oso maila onean. 16 urte ditu eta dagoeneko Espainiako eta Euzkadiako selekzioekin jokatu izan du. Oso trebea da.

Zuen artean kritikak izaten edota komentatzen al dituzue bata bestearen jokatzekeo erak?

Bai ibiltzen gara jokaldiak eta egindako hutsegiteak komentatzen. Jokaldi oso onak egiten ditugunean ere elkar zoriontzen gara, gure harremana oso ona da eta. Txikitari oso jokatzen genuen elkarrekin; orain denborarik ez daukagu.

Gurasoek zer diote?

Beti animatu izan gaituzte, txikitatik gustatzen zitzaiguna egitera bultzatuz. Oso zaleak dira, partida guztiak ikustera joaten diren guraso horietakok. Arreba normalean goizez jokatzen du eta nik arratsalde, orduan biak joaten dira bi partiduak ikustea. Inoiz biak batera egokitzen baldin badira, ama arrebarena ikustera joaten da eta aita nirera. Futbola gustatzen zaie eta gure jarraitzaile sutsuak dira. Beraiek ere komentatzen dizkigute egiten ditugun akatsak. Egia esaten digute beti eta partiduaren batean maila erakutsi ez badugu arazorik gabe esaten digute. •

Bolotan, Santi eta Martin-en omenez

Gipuzkoako hainbat tokitako 25 bolarik parte hartu zuten VIII. Bolo Txapelketan igandean Michelinen

Santi & Martin-en oroimeneko VIII. bolo txapelketa jokatu zen igande goizean Michelingo bolatokian. 25 bolarik parte hartu zuten txapelketan eta Gipuzkoako hainbat tokitatik etorri ziren zenbait lagun. Hala nola, Legazpi, Hernani, Donostia, Segura, Urnieta, Olaberria eta Zeraingo bolariak bertaratu ziren herrikoiez gain.

Hiru kategoriatan banatuta egin zen igande goizean Lasarte-Oriako VIII. Bolo Txapelketa: Probintziala, herrikoa eta emakumezkoena.

Emaitzak

Probintzia mailakoan, norgehiagoka itzela ikusi genuen. 48 birla botata, Juan Goenaga donostiarra izan zen garaile, Marcelino Agirre segurarrarekin berdinketa-hauste gogor bat izan ostean. Hirugarren, Belaunzarán urnietarra sailkatu zen eta Joxian Lasa herritarra izan zen laugarren.

Herri mailako txapelketan, Lasa bera izan zen lehen sailkatua 47 birla botatzea lortu ostean. Hala ere, Jesus Lasarekin berdinketa haustea egin behar izan zuten garaile nor



Bolo txapelketa Santi eta Martinen oroimenez antolatzen dute. Goian eskubian bien alargunak orogarriekin. Txapelketa amaitzean, irribarretsu zeuden denak euren sariekin.



izango zen erabakitzeko. Hirugarren postua berriz, Inaxio Otaegirentzat izan zen.

Azkenik, emakumezkoen mailan Txaro Galan izan zen onena. Atzetik izan zituen

Martin omenduaren Arantxa eta Maitane alabak.

Esker oneko hitzak

Antolakuntzak eskerrak eman nahi izan zizkien bolo txapel-

ketan kolaborazio lanetan aritu diren guztiei. Haiek gabe, halako txapelketa bat antolatzea ezinezkoa izango litzatekeela adierazi zuten.

Hurrungo urtean, babes

bera jasotzea espero dutela esan eta txapelketako parte-hartzaile guztiei esker ona adierazi nahi izan diete antolakuntzan aritu diren Montes eta Zapirainek. •

Intertzeporearen lanak lekuz aldatuko dira

Lasarte-Oria eta Usurbilgo saneamenduko interzep-tore orokorreko sarea osatzeko lanak direla eta abuztutik hona Uistin kaleko eremu bat itxia egon da.

Lan hauek bukatuta, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du, Oria ibaiaren paralelo doan Uistin Kaleko adareko 2. gauzatze-faseari ekingo zaiola bihar, urriaren 4an.

Espainia Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatzen duen obra honen bigarren fasean Uistin kalea 19 eta Blas de Lezo kalea 13 arteko eremua itxiko da hilabetez.

Aldaketak

Kale itxiera hau dela eta, hainbat aldaketa egongo dira urriaren 4tik aurrera eremu horretan.

Batetik, Juan XXIII.aren Plazako eta Zubieta Plazako lurpeko aparkalekuetako sarrera-irteerak, behin-behinean, lanek irauten duten bitartean, Hipodromo Etorbidetik egin beharko dituzte autoek.

Bestetik, Uistin Kaletik Hipodromo Etorbideranzko ibilbidea, behin-behinean, Blas de Lezo eta Geltoki Kaleetan barrena desbideratuko da.

Ibilgailuak kendu

Bestalde, obra-eremuaren barruan aparkatuta dauden autoak erretiratzeko eskatzen die Udalak herritarrei.

Era berean, alkatetzak barkamena eskatu nahi die herritarrei lanek sor ditzaketen eragozpenengatik. •



Intertzep-tore orokorreko lanak direla eta, Uistin eta Blas de Lezo kaleko eremuan zentzu aldaketak egongo dira bihurtik aurrera.



Egunari hasiera emateko, San Pedro parrokiaren meza ospatu zen eta Pateo Etxeberriak zenbait berro bota zituen bertan.



Mezaren ondoren, Amalur taldeko trikitariak kalajira egin zuten kultur eserainoko bida.



M^o Luisa Corzajarenaren zuzendaritzapean, abesti ezagunak kantatu zituen Biyak-Bat erretratuaren abesbatzak.



Michelingo pilotalekua jendez lepo ikus ziteleen igandeko bazkarian, aurtengoa 580 lagun bildu dira.



Sabela bete eta brindis egin ostean, gerriak mugitzeko ordua heldu zitzaion bazkaria bertaratutako guztioi.

Herriko adinduak omendu zituzten asteburu osoan

Persona adinduen egun handia izan zen Lasarte-Orian urriaren 2a, igandea.

Ohikoa den bezala, bazkaria egin zen. Bertan, 580 herritar batu ziren eta Francisca Niño Miguel 1919. urtean jaioa, eta 1921ean jaioakoa Ceferino Verdejo omendu zituzten Udalak, bazkarian elkartu zirenen artean pertsona adinduenak izateagatik.

Hauetaz gain, oroiagari bat jaso zuten aurten urrezko etxeiak bete dituzten 19 bikoteek ere.

Ospakitzunak
Baina hau ez zen egun honetako ospakizun bakarra izan. Lehenik, San Pedro parrokiaren meza ospatu zen. Pateo Etxeberria bertsoari eta Amalur eskolako trikitaria taldeak eta dantzariak parte hartu zuten

meza girotuaz. Ondorez, Amalur eskolako trikitariak kalejira egin zuten Kultur Etxeraino, kalean zeuden herritarrei jaialdira joateko gonibidea eginez.

Izan ere, Kultur Etxean bertan Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuen elkarteak abesbatzak eskaintako kontzertua entzuteko aukera egin zen, baita hainbat txiste entzuteko ere.

Eguneko ospakizun nagusia Michelingo kirolgunean egin zen bazkaria izan zen. Bertan egin ziren omenaldia jaso beharra zuten guztiak eta baita udaleko zenbait ordokari ere.

Hauetaz gain, brindis bat egin zuten etorri ezin zirenak gogoratze eta osten, urteroko dantzaldiarekin eman zitzaion amaiera aurtengo ekitaldiari. ♦



Giro bikaina izan zen bazkaldian. Udali ordezkariek herriko zaharrenekin batera bazkaldia zuten mahai nagusian.

Francisca Niño eta Ceferino Verdejo aurten zaharrenek



Francisca Niño eta Ceferino Verdejo izan ziren igandeko bazkarian zaharrenek, udali ordezkari eta spazietan bazkaldia zuten eta oroiagari bat jaso. 92 eta 90 urte dituzte.

“Oso harro nago omenaldia jaso izanaz, ohore bat da niretzat”

Francisca Niño Miguel 1919. urtean jaio zen Palentziako herriko batean eta atzo kontatu zigunez txiki-txikitatik lanean aritua da Francisca Palentzia aldeko lurretan.

Hetz “ikaragarriak” pasatu-

koak omen dira paraje haie-tan, baina lurra lanitzen ibil-tzen zirenez, jaietako behintzat bazutela esan digu. Alabak azaldu digunez, “ez zuen uste omendua izango zenik eta oso pozik dago.”

“Gaurkoa, bizitza osoan eginiko borrokatik jasotako saria da”

Ceferino Verdejo 1921ean jaio zen Leongo Pobladora de Peláyo García izeneko herri-ka batean. Ceferinok aitapatu digunez, mahatsa biltzen ari-zen ziren gazte garaietan eta horri diela eta, ez zitzairen

ardoa sekula falta etxean. Hala ere, garai txarrak bizi izandakoak direla dio, bai Gerra Zibilaren garaian baita hurrengo urteetan ere. Horrek guztiak gizon “gogor” bihurtu duela dio.



Urrezko etxeen ekitaldiaren ostean, bikoteek talde argusia egin zuten udaliko eta elkarte ordezkariekin batera.

50 urte elkarrekin.- Aurten urrezko etxeiak dituzten herriko 18 bikoteei eta 51. urteurrena egin duen bikote bati oroiagariak banatu zizkieten lehengo ostiralean, irailaren 30ean. Biyak Bat elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren, Caja Rural de Navarra, Caixa eta Kutxaren laguntzaz, landare bat, plaka bat, pasta, etab. hartu zituzten bikoteek ekitaldian. Pateo Barrio alkatea, Gorka Lizarraga zinegotzia eta Biyak Bateko zuzendaritzako lagunek eman zituzten opariak.

Bikote omenduenak, Tomas Ibañez eta Matilde Moran; Mikel Egana eta Pilar Urribe; Antonio Rebe eta Angeli-ta Busta; Bartolomé Sánchez eta Laurentina Sánchez; Ignacio García eta M^o Jesús Martínez; Dionisio de la Vuelta eta Gregoria Pacheco; Manuel Párraga eta Brigida Ugarte; Dimas Naguero eta Ana Beciano; Lorenzo Fernandez eta M^o Antonio Holgado; Antonio Fernandez eta M^o Begoña Apaolaza; Jose Zato eta Cecilia Bajo; Jacinto Prieto eta Isabel Calle; Manuel Lorenzo eta Arantza Tolosa; Antonio Villena eta M^o Carmen Reina; Flo-rencio Vivas eta Josefá Bejarano; Martín Prieto eta Carmen Sánchez; Fernando Manchado eta Consolación Rodríguez; Isaac Barbero eta Angelia San Jose eta Paulino Bamezueba eta Conchita Omezcabal izan ziren. ♦

Kukukaren ospakizun urtea

■ Antzerki eta dantza eskolak 10 urte bete ditu ■ Ekainean festa handi bat egingo dute partaide denen artean ■ Zabaletan lau talde hasi eta egun 700 ikasletik gora dira 57 taldetan banatuta

Kukuka, Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza eskolak ostegun iluntzean aurkeztu zuen ikasturte berria Kultur Etxean, modu berezi batean, aurten 10 urte betetzen dituela eta. Ekitaldian, batetik eskolako 19 irakasleetako batzuek koreografia bat dantzatu zuten, bestalde Irrien Lagunak Klubarentzat lasarteoriarrek Villa Mirentxun grabatutako Lip-Dub-a eta Eskolaren hamar urtetako ibilbidearen inguruan Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek egindako bideoa eskaini ziren eta azkenik, Kukukaren abestia dantzatu zuten emanaldian izan zirenek.

Jon ALTUNA IZA

Kukuka Eskolan 700 lagunetik gora matrikulatu dira 2011 eta 2012 ikasturterako. Duela 10 urte Zabaleta auzoan lau talderekin hasi zen proiektua sendotu eta Lasarte-Orian sustraitu dela argi dago beraz.

Egun 57 talde dira eta 19 irakasle. Kultur Etxean eta herriko ikastetxeetan erakusten dute dantza eta antzerkia astean zehar ordutegi ezberdinarekin, beraz ez da erraza ehundaka ikasle, eta hainbeste talde eta ordutegi antolatzea, eta zailtasun horiei aurre egin behar izaten diete urtero eskolan hasieratik ari den Kontxu lartzak eta beste irakasleek.

Hain juxtu, ikasturte amaierako jaialdi eta kalejiran dantzatuko diren koreografiatiko bat prestatu dute irakasleek korrika eta presaka, eta osteguneko aurkezpena berau dantzatuz hasi zuten.

Nortasuna sendotuz

Dantzaren ondoren Joxe Mari Agirretxe Kukukako ordezkariak adierazi zuenez, dantza eta antzerki talde pila bat badira ere eta hori garrantzitsua bada ere, ez da garrantzitsua: "inportanteena helburua da, Antzerki eta Dantza eskolan ari garenean gutariko bakoitza pertsonalki haztea, barruan dauzkagun lotsak, bel-durrak, komunikatzeko era-

gozpenak, alde batera utzi eta pertsona bezala haztea, komunikatzeko erraztasunak eskuratzzea, gure sufrimenduak adieraztea, segurtatea hartzea eta azken finean nortasuna sakontzea".

Lagunartean

Beraz, Kukuka ekimena ikasle bakoitzarentzat da aberasgarri, baina talde izaera nabarmendu zuen Agirretxek: "hemen ez da irabazten edo galtzen, antzerkia eta dantza taldean egiten da, lagunartean, lagunak eginez, lana eginez, diziplinarekin, baina disfrutatuz, eta ondo pasatuz".

Norberaren onura eta lagunarteko lanaz gain hirugarren puntu bat ere azzimarratu zuen Kukukako ordezkariak, herria: "Lasarte-Orian gaude, euskaraz nahi dugu bizi, Lasarte-Oria polit bat nahi dugu eta hori denon artean egiten dugu. Kulturatik, euskaratik eta alaitasunetik eginik errazago eta politagoa da eta beraz zorionak denei" bukatu zuen Agirretxek.

Hamar urte

Antzerki eta Dantza eskolako arduradunaren hitzen ondoren Kultur Etxeko beheko aretoa bete zuten ikasleek "Zorionak Zuri" kantatu zioten Kukukari. Hamargarren urteurrena dela eta ikasturte berezia izango da aurtengoa: Ekainean festa handi bat egingo dute, denen



Kukukako 19 irakasleetatik 12k dantza egin zuen kultur etxeko ekitaldian eta aurkezpen lana, aldiz, Joxe Mari Agirretxek egin zuen.



Aurkezpenaren eskainitako bideoan Eskolaren 10 urteko ibilbidea jaso da.



Bukaeran Kukukaren abestia dantzatu zuten irakasle eta ikasleek elkarrekin.

parte hartzearekin, baina ikasturtean zehar ere hileroko antzerki eta dantza emanaldiren bat antolatu nahi dute, Agirretxeren iritziz, "antzerkia egitea polita da, dantzatzea polita da

baina besteena ikusiz, ikasi eta disfrutatu nahi dugu", beraz aurkezpenean aurreratu zuten ikuskizunak ekarriko dituzte urtean zehar, "umeentzat, sendientzat, helduentzat,

denentzat". Aurten hileroko antolatua nahi dute Udalerren laguntzaz emanaldiren bat.

Lip-dub eta bideoa

Hasteko, aurkezpenean, bi bideo eman ziren. Batetik, Irriaren Klubaren Lip Dub-a. Joxe Mari Agirretxeren iritziz, "Kukukaren filosofiaren barruan oinarrietako bat da elkarlana" eta horren adibide da Lip Dub-a.

Ekainean grabatu zuten hainbat lagunenekin batera, besteak beste, Gaztelekukoek, bonberoek, Beltzak errugbi taldekoek, antzerki eta dantza eskolakoek, Erketz dantza taldekoek, Amalur trikiti eta pandero eskolakoek, Gure Ametza Jaigunekoek, guraso eta umeek, Bonberenea txaranga-koek, Xumela abesbatzakoek, AEKko ikasleek, Bertso eskolakoek, Semblante Andaluz elkarteok eta Sorgin dantzakoek hartu zuten parte.

Bestalde, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Antzerki eta Dantza eskolaren hamar urtetako ibilbidearen inguruan egindako bideoa eskaini zuten eta bukatzeko, Kultur Etxean bildu zirenek, batzuek oholtza gainean eta besteek euren eserlekuetan, Kukukaren abestia kantatu eta dantzatu zuten. 1, 2, 3, 4. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

AIZE OTANOREN *BEGIRADAK* erakusketa zabalik da irailean zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Osteguna, 6

Hitzaldia

Osasun sailak antolatzen dituen haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, JOSUNE MARTIRENA "HAURRAK, POSIBLE OTE DA ESKATZEN ZAIENA LORTZEA, ZIGORRIK ETA MEHATXURIK GABE?" gaiari buruz arituko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan.**

Ostirala, 7

Gazte kontzertua

LOW RIDERS taldearen rock emanaldia Xpressionk! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEKO KAFETEGIAN. **20:00etan**



Balletaren mundu lehiakorra

Okendo Zinema taldearen eskutik, "CISNE NEGRO" filma eskainiko da. Balletean oinarritzen den pelikula honetan suspense psikologikoa da nagusi. Bi dantzarik Zisneen lakua balletaren paper nagusia eskuratu nahi dute.

OSTEGUNA, URRIAK 6
21:30EAN

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN
SARRERA, 4,30 EURO. GAZTELANIAZ



Magia ikuskizuna

Artxila murtxila hitzekin helduentzat egin duen ILUSIOA magia ikuskizuna ekarriko du TXAN MAGOAK Lasarte-Oriara. JALGI KAFE-ANTZOKIAN. **23:00etan.** EUSKARAZ

Larunbata, 8

Berto-saioa

G.PUNTUA, Gipuzkoako bertsolari txapelketako FINAL ZORTZIRENEKO SAIOA. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi, Amaia Iturriotz, Oihana Iguaran eta Andoni Otamendi lasarteoriarra. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:30ean. Sarrerak, www.gpuntu.com-en.**



Igandea, 9

Zinea

Haurrentzako zinema atalean, "EL ORIGEN DEL PLANETA DE LOS SIMIOS" pelikula eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etan. Sarrera, 3,30 euro. GAZTELANIAZ**



Oharrak

Udaleku eta Udako Txokotako arropa galdua

Udako txoko eta udalekuetan egon diren haurren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke Ludotekara.

Arropa urriaren 14ra arte jaso ahal izango da astelehenetik ostiralera arratsaldetan.

Hezkuntza iraunkorra

Danok Kide guraso elkarteak 50 urte baino gehiagoko pertsonen hezkuntza iraunkor-rako ikastaroa antolatuta du.

Ikasturtea urriaren 18an hasiko da eta 2012ko maiatzaren 17an izango du amaiera.

Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko elkarte telefono zenbakira, 943 371 616, deitu behar dute interesatuek, astelehenetik ostegunera, 10:30etik 12:30era.

Irakodizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko irakodizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaltzeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakodizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Artista eta musikariak deialdia

Xpressionk Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

Elkartearekin harremanetan jartzeko jokin@xpressionk.net helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu.

Futboleko Porra

Ostadar S.K.T. k futboleko porra jarriko du berri martxan. Boletoak eta zerrrendak ohiko tabernatan izango dira irailak 30etik urriak 8ra bitartean. Larunbata horretan, arratsaldeko 16:00etan jasoko dira txartelak.

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitezte!

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Eskutitza

Ezezko biribila erraustegiari

Hasieratik erraustegiaren aurka azaldu garenok, bideragarriak diren bestelako aukerak proposatzea eskatu zaigu. Hauek proposatu ditugu eta martxan jarri ere bai. Oztopo politiko eta administratibo guztien ginetik, baita esan diren gezur guztiak gaindituta ere, argi frogatu da zaborraren banakako bilketarekin %80tik gorako eraginkortasuna lortzen dela.

Emaitza honek adierazten du erraustegi edo zabortege zikinen eraikuntza ez dela beharrezkoa.

Duela urte batzuk, banakako zabor bilketa kopurua

handitzeko behararen inguruan (%30 jasotzen zen Lasarte-Orian), edo erraustegi bat eraikitzeke aukeraren artean sortutako eztabaidan, Lasarte-Oriako alderdi sozialistak lurperatutako edukiontzien aldeko apustua egin zuten.

Erabaki honekin dirutza lurperatu zuen udalak eta gainera banakako zabor bilketaren kopurua apenas aldatu zuten.

Lurpeko edukiontzi hauen instalazioari esker, herria ekonomikoki hipotekatu zen sistemaren ohiko mantentze garestia dela eta. Ondoren, udal hitzarmen bat mespreatuz, atez ateko zabor bilketa martxan jartzeko proiektu

pilotuari betoa jarri zioten sozialistek.

Orain, PSE-k 5º edukiontzia alderdi apustua egin du. 5º kontenedorea gure inguruko zenbait herritan jarri da eta hauetan lortutako emaitzek argi utzi dute, bategatik oso sistema garestia dela eta bestetik, banakako zabor bilketan lortutako kopurua oso gutxi aldatu dela, ez da aldaketa nabarmenik antzeman.

Lasarte-Orian zehar ibilita, nabaria da oraingo lau kontenedoreekin usain txarrak eta zikinkeria dagoela herriko kaleetan. Edukiontzi bat gehitzearekin ez da lortzen edozein gizarte garatuetan banakako zabor bilketak

osasuna, ekonomia eta arduragatik sortu behar lituzkeen hondakin mailak.

Badakigu Lasarte-Oriako PSE-k gure osasuna kaltetuko duen eta ekonomikoki hipotekatuko gaituen erraustegia eraiki nahi duela, bere esanetan, gure onerako lan egin ari den bitartean.

Lasarte-Oriako PSE-k herritarren osasunarengatik arduratzea nahi genuke. Nahi duen zabor bilketa sistemaren alde egin eta hau nahi bezala izendatzea dauka baina lortutako emaitzak %80 tik gorakoak izatea eskatzen diogu eta behingoz azpikoak uztea.

Lasarte-Oria Bizirik



Zero Sette herriko akordeoi taldeak hiru pieza jo zituen: zartzuela, pieza klasiko eta blues bana interpretatu zituet Elias Goikouria zuzendariaren esanetara.

Akordeoi jaialdi gogoangarria

Ikuskizun itzela eskaini zuten oholtzaratu ziren musikari guztiek ■ Jende ugari bertaratu zen kontzertua ikustera

Jon ALTUNA EGITEGI

Lasarte-Oriako VIII. Akordeoi jaialdia egin zen larunbatean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Jende ugari bertaratu zen Zero Sette orkestrak antolatutako kontzertuaz gozatzera.

Lehenik, Klezmática Trio bibolin, akordeoi eta kontrabaxuz osatutako hirukoteak denetarikoinuak eskaini zituen musikazaleen gozamenarako. Jatorri poloniarreko artistak izanik, nabariak ziren musika armeniarra, judutarra eta balkaniararen eraginak, besteak beste.

Ostean, pieza politikak eskaini zituen Jean-Louis Noton bakarlari frantziarrak. Jendea kantuan jarri zuen, Frantziako ereserkia eta hainbat pelikuletako doinuak tar-tekatuz ikusleen ezpainetan irribarra marraztea lortu

zuen eta adio esateko, "Agur Jaunak" piezaren zatitxo bat jo zuen.

Azkenik, aurreko bien emanaldiari Zero Sette herriko taldeak eman zion jarraipena eta hiru pieza eskaini zituen Elias Goikouria zuzendariaren esanetara. Pieza klasiko bat, zartzuela bat eta blues bat interpretatu zituen Zero Settek. Aipagarria da Itsasondoko hain-

bat musikariren kolaborazioa eduki zuela herriko taldeak.

Kontzertuko momenturik hungigarriena ilunabarrean protagonista izan ziren hiru kontzertuetako artistek lore sorta eta txapela jantzi zutenean izan zen. Boris Nogales kultura departamenduko ordezkaria eta Pablo Barrio alkatearen eskutik jaso zituzten oroigarriak. •



Arratsaldeko protagonistek lore sorta eta txapela jaso zituzten.



Jean-Louis Nortonek emanaldi dibertigarria eskaini zuen.



Klezmática Trio taldeak bere kalitatearen berri eman zuen.

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

%20 DESKONTUA

RENOVE PLANA

10 HILABETE INTERESIK GABE
ETA HASI URTARRILEAN ORDAINTZEN

Urtarraren 1etik 20era